

SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEAK SEADen aldeko elikagaien karabana antolatu du Zarautzen, Euskadin Fronte Polisarioak duen ordezkartzarekin eta *Media Luna Roja Saharaui* taldearekin elkarlanean. Eta laguntza eskatu dio Zarauzko Udalari.

Elkartasun-kanpaina horren helburua da saharar herriari janariak helaraztea, Aljerian Tindufeko errefuxiatuek pairatzen duten elikagai-eskasia arintzeko.

Ekimen horren bitartez, janariaz gain (arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluzea zein sardinak oliotan), higiene-produktuak ere bilduko dira (konpresak).

Ekimenaren ezaugarriak ikusita, SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEAREN eskaera horrek bat egiten du GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOetan jarritako baldintzekin (Zarauzko Udalbatzarrek 2024ko urtarrilaren 25eko osoko bilkuran onartutakoak).

Oinarri horien arabera, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 22.2c artikuluan xedatutakoaren arabera emango dira laguntzak, dituzten ezaugarri bereziengatik, eta aurrekontuetan jarritako kreditu erabilgarria bukatu arte emango dira.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.2 atalean jasotzen da hainbat dirulaguntza zuzenean eman daitezkeela. 22.2c atalean, hain zuen ere, salbuespenez eman daitezkeela interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen direnean, edo deialdi publikoaren bitartez emateko zailtasunak dituztela justifikatzen denean.

Kasu honetan, argi dago ekimen hori udal interesekoa dela, arrazoi humanitarioak kontuan hartuta. Halaber, goian aipatutako xedea betetzen duen kolektibo bakarra SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEA da, eta horrek zaildu egiten du xede horretara bideratutako dirulaguntza deialdi publikoaren bitartez ateratzea.

Hori guztia kontuan hartuta, eta teknikariak egindako txostena ikusita, honako hau **ERABAKITZEN DUT**:

**Lehenengoa.-** SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEARI 9.000,00 euroko dirulaguntza ematea, Zarautzen SEADen alde egingo den elikagai-karabanarako.

**Bigarrena.-** Dirulaguntza hori azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2c) artikuluari jarraikiz ematea, partida honen kontura: 0501 481 02 231 81 2025.

**Hirugarrena.-** Dekretu hau sinatutakoan, SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEARI 6.300,00 € ordaintzea (laguntzaren % 70).

**Laugarrena.-** Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, kontzesioaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

**Bosgarrena.-** Dirulaguntza ondorengo puntuek arautuko dute:

#### **1.- Xedea**

SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEARI 9.000,00 euroko dirulaguntza ematea, SAHARAREN ALDEKO ELIKAGAIEN EUSKAL KARABANARako elikagaien eta higiene-produktuen erosketa eta horiek garraiatzeko kaxak finantzatzeko, baita karabanaren berri emateko kartelak eta esku-orriak finantzatzeko ere.

#### **2.- SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEAREN betebeharrak.**

- Dirulaguntzaren erabilera justifikatu.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta eta egunean dituela egiaztatu. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, baimena emango dio Zarauzko Udalari, horrek erakunde eskudunei informazioa eskatzeko.

#### **3.- Diruz laguntzeko gastuak**

Xedean definitutako jarduerak burutzeko gastuak lagunduko dira diruz.

#### **4.- Organo eskuduna**

Zarauzko Udaleko immigrazio eta kultur aniztasunerako teknikaria izango da dirulaguntzon organo kudeatzailea.

#### **5.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin**

Dirulaguntza hau bateragarria da onuradunek lortzen dituzten beste laguntza batzuekin. Hori bai, dirulaguntza honek –bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera, eta errekurtsioekin batera– ezin izango du inola ere gainditu erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua.

#### **6.- Ordainketa era**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: %70 dekretua sinatutakoan, eta gainerako %30, emandako dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa aurkeztu ondoren.

#### **7.- Justifikazio era eta epea**

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa 2026. urteko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

Horretarako, hauek aurkeztu beharko dituzte: jarduera-memoria, memoria ekonomikoa, egindako gastuaren frogagiriak eta diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatua.

Gastuen frogagiriak edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko, dagozkion transferentzien agiriekin batera.

Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

#### **8.- Berme erregimena**

Dirulaguntza ordaintzeko ez da derrigorrezkoa izango inolako bermerik jartzea.

#### **9.- Publizitatea**

Diruz lagundutako jarduerak dibulgatu, zabaldu edo, kasuan kasu, horien publizitatea egin behar bada, SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEAK espresuki adieraziko du Zarauzko Udalaren lankidetzat. Horretarako Zarauzko Udalaren logotipoa argi ikusteko moduan jarriko du, edo, bestela, espresuki aipatuko du babes hori.

#### **10.- Itzulera-kausak**

Akordio honetako itzulera kausak hauek izango dira:

- Dirulaguntza akordio honetan jarritako xederako ez erabiltzea.
- Elkartea onuraduna desegitea.
- Akordio honetan jarritako baldintzak ez betetzea.

#### **11.- Araudia**

SAHARAUTZ MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO ELKARTASUN TALDEAK udal ordenantza aplikagarrietan jarritakoa bete beharko du, baita gai bakoitzarekin lotuta indarrean dagoen legedia ere, eta, batez ere, ondoren adierazten direnak:

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, eta gai horrekin lotutako Udal Ordenantzak.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegia.
- 3/2018 Legea, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.